


# DESENTXUFATUAK

Euskaldunberri zaharrak ez dira inoiz hiltzen



## “DESENTXUFATUAK”

Sinopsis moduko bat



Bi euskara ikasle, “munduko euskaldunberririk zaharrenak”, berrogei urte daramate euskaltegian eta oraindik... Publikoartera agertzen dira euren frustrazio, desio eta keak adierazteko. Maitasun istoriorik ederrenetan bezala, euskera maite dute eta gorroto. Gorroto dutelako maite dute; maite dutelako, gorroto.

“Desentxufatuak” katarsi ariketa bat da. Euskera ikasleentzat bada, jakina, euren isla (deformatua) ikusten dutelako eskenatokian. Baina euskera ikasle ez direnentzat ere. Euskaldun guztion islaere badirelako bi pertsonaiok. Euskaldunok ditugun desio, kexa, eta obsesio berberak dituztelako. Eta obsesioetan, bi nagusi: euskera bera eta... bai, sexua, jakina!

“DESENTXUFATUAK”, “Euskera Sencilloaren Manifestoa” eta “Larruaizetara” antzezlanen eskenarik onenekin osatua dago.

Artifizio handirik gabe agertu nahi dugu publiko aurrean, aurreko ikuskizunen eskenarik arrakastatsuenetaz baliatuz kalitatea konzentratua eskeintzeko. Ez Dok Hiru-ren funtsa “unplugged” (desentxufatuak)

Testua, Patxo Telleria

Interpretazioa, Mikel Martinez eta Patxo Telleria.